

Europar Batasunetik kanpo esportatzen duten gipuzkoako enpresen kopurua %12 handitu da 2016an

Donostia - 2017ko Urtarrilaren 10a

Gipuzkoako enpresek Europar Batasunetik kanpo egindako esportazioak hazitzen segitzen dutela adierazten dute Gipuzkoako Bazkondeak joan den urtean, 2016ean, igorritako esportaziorako agiriak.

Bi mila eta hamabosteko datuekin alderatuz, esportaziorako agiriak eskatu dituzten gipuzkoako enpresen kopurua %12 hazi da 2016an, 713 enpresa izatera iritsi dira. Era berean, esportazioarako agiriak, merkantziaren jatorria bermatzen dutenak eta esportatutako produktuak bidaliko diren herrialdean erabili ahal izateko egokiak direla egiaztatzen duten agiri hauen izapideak %7 hazi dira.

Herrialdeei dagokionez, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak, India, Txina, Aljeria, Turkia, Kuba, Errusia eta Iran dira merkantzia bertara esportatu ahal izateko esportaziorako agirien eskaera gehien izaten dituzten herrialdeak. Era berean eta neurri txikian bada ere, Gipuzkoako enpresentzat ezhokiak diren herrialdeetara ere esportazioak egiten hasi direla ikusten da, hala nola, Armenia, Benin, Burkina Faso, Ghana, Moldavia, Reunion, Zimbabwe, Bahamak, Samoa, Djibuti eta Mongolia besteak beste.

Nabarmentzekoa da ere aldi baterako esportazioen igoera. ATA koadernoaren igoera, %26 hazi da 2016an. Aldi baterako esportazioak kanpoan egin behar diren instalazioak, makinaren baten abiaraztea edo antzekoak egiteko eraman behar den material profesionalarekin batera dijoazten agiriak dira, oso erabiliak ere feria komertzialetan gure enpresek erakusteko makinaria eraman behar dutenean.

Datu hauek guztiek, gure enpresak kanpora ateratzeko duten joera indartu dela adierazten dute eta horrez gain, gipuzkoako enpresak egunetik egunera nazioartekotzean murgilduta daudenaren adierazle dira ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347